

2023.ko martxoaren 25 eta 26a

Kaixo, lagunak:

Guztion esku dago!.

Halaxe erakusten digu, argi erakutsi, Caritasen kanpainaren kartelak. Gu guztion esku dago Jainkoaren ametsa egia bihurtzea, gizakiak kreazioa zaintzea eta betetasunera eramatea.

“Eta egin zuen guztia oso ona zela ikusi zuen Jainkoak”- Gn 1,31

Baina, gure ingurura begiratuta, ez dirudi zaintzaile gisa dagokigun erantzukizun hori behar bezala gauzatzen ari garenik.

Gero eta larriagoak dira pobrezia, berdintasun eza, gizarte bazterketa, ingurumen arazoak, bereziki gure bizimoduaren eraginez, ez baitirudi egunerokotasunean oso kontuan hartzen dugunik zaintza dela bizitzari berari eusteko oinarrizko ardatza.

Lurraren aldarria da pobreen aldarria bera. **“Ez dira bi krisi bereizi, ingurumenekoa bata eta gizartekoa bestea: gizarte eta ingurumen krisi bakar bat dago, oso konplexua”** (LS 139), jatorri bera dute biek.

Horregatik, bereziki aldarrikatu nahi du Caritasek: “Zaindu, eskutik heldu”.

Hartu itzazu zure bizitza sozialean, pertsonalean eta familiartekoan eguneroko portaeretan aldaketa txikiak egiteko lagungarri gertatuko zaizkizun erabakiak.

Eta zure buruari galdetzen badiozu “Zer egin dezaket nik?”, hona hemen proposamen batzuk:

- Izan bizi estilo xumea: ohartu zure gastuez, kontsumitu arduraz, bereizi zer den benetan behar duzuna eta zer nahi duzuna.
- Begiratu errealitateari hurbiletik: hartu denbora behatzeko, eskertu, partekatu zure dohainak eta ondasunak behar gehien dutenekin.
- Bilatu koherentziaz bizitzea, zure erabakien bidez.
- Egin otoitz bizitzaren Jainkoari, maite baitzaitu biziki, eta ikasi nola zaintzen zaituen samurki.

Hauxe da gaur egiten dugun proposamena, zentzuaren eta alaitasunaren iturri gisa: gure bizi eta kontsumo estiloan aldaketa txiki baina esanguratsuak egitea, pixkanaka ekar ditzaten, legamiak bezala, eraldaketa sakonagoak.

Zure esku dago, guztion esku dago.

Jaso ezazu besarkada bero bat.



Carlos Bargos
Zuzendaria

25 y 26 de marzo de 2023

Estimadas amigas, estimados amigos,

¡Está en nuestras manos!

El cartel de la campaña de Cáritas nos lo muestra con claridad. Hacer realidad el sueño de Dios en el que el ser humano cuida de la creación para llevarla a plenitud, está en nuestras manos.

“Vio Dios cuanto había hecho, y vio que todo era bueno”- Gn 1,31

Pero si observamos la realidad que nos rodea, no parece que estemos asumiendo adecuadamente esta responsabilidad como cuidadoras y cuidadores.

La intensificación de la pobreza, la desigualdad, la exclusión social, los graves problemas ambientales son consecuencias de un estilo de vida que se ha olvidado del cuidado como eje fundamental para la sostenibilidad de la propia vida.

El grito de la tierra es el grito de los pobres. **“No existe una crisis ambiental y una crisis social, sino una única y compleja crisis socio-ambiental”** (LS 139), ambas tienen el mismo origen.

Por eso desde Cáritas insistimos: “Cultiva cuidados”

Toma decisiones en tu vida social, familiar y personal que te ayuden a realizar cada día pequeños cambios en tus comportamientos cotidianos.

Y si te preguntas: yo ¿qué puedo hacer?, te proponemos:

- Vive con sencillez: sé consciente de tus gastos, practica el consumo responsable, diferencia lo que realmente necesitas de lo que solamente deseas.
- Acerca tu mirada a la realidad: reserva tiempo para observar, agradece, comparte tus dones y bienes con las personas que más lo necesitan.
- Busca la coherencia en tu vida a través de las decisiones que tomas.
- Reza al Dios de la vida que te quiere con locura y aprende de cómo te cuida con ternura.

Es la propuesta que hoy hacemos como fuente de sentido y de alegría, pequeños pero significativos cambios que podemos hacer en nuestro estilo de vida y de consumo, que van a ir produciendo poco a poco, como levadura, transformaciones mayores.

Está en tus manos, está en nuestras manos.

Recibe un cálido abrazo.



Carlos Bargos
Director